

KANPANILLA-LORA ZURIARI



Arbolak billoš narru gorrian dagoz oraiñdik,
Marti illaren asierako egunean;
Kanpoa bere ez da oraindik asko abian
Bizkortu eta pozgarritzera azalean;
Baña alan bere, Eguzkiaren errañu batek
Ikusi dot nik egun sentian ikutzean,
Batu baturik eukan kolkoa kanpanilleak,
Berealaše zabal ipinten zan bestean;
Esan gurarik aurkitzen dala negu zitala,
Ill bear eta, estu baña ill eziñean.

Lora kolorga bakarlekuko onek dirudi,
Dala guztien aurretik jayo egin dana;
Chanchangorria chorrochioka datorren legez,
Iragarriten Udabarria laster dala;
Ongi etorri zaite lenengo lora zuria,
Jarraitu beye zure atzetik urreguak;
Apainduagaz landak, basoak, baita mendiak,
Zeintzuk daukazan negu gogorrek billostulak.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

